

ANGELUKO IKASLEAK1997-98 KO IKASURTEA-OSOGUNEKO ERAKASKERAZAZPIGARREN ERAKASPENA.

13

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Erakuskigune itxirak idazlariak erabiliak neguaren terakusteko.
2. Bestalde egun hartan zohardiz zena? Zertako?
3. Zer da Jon Doni Jakoberen bidea?

Piarres

ARTHO XURITZEN 6.

Ieien eskalapoin-azantzeri bulta bat beha egon zen Piarres, bizkarrez atxeari. Landa, sorho, ibarrak elhurrez xurituak, argi, argia, han zituen aintzinean, ilhargi-bethearen azpian. Oihanak, xarak, berro-sasiak aldiz, egunaz ere batino beltzago ageri ziren orai. Ur-handia, suge ilhun alimale bat bezala, bazoan, bere bethiko dean, orroaz urrunerat suma zitaken itsasoari buruz, aphalaphala, herrestan. Olhasoko, Iergaraiko, Amotzko, Helbarrungo mendisak, hauts kolore, eder ziren alderdi guzietan; eta han, uhartzean, Santa Barbarak iduri zuen Larrune handiaren mendi-kume bat.

Izar arte xoragarrienaren erdian, Jon Doni Jakoberen bidetik ezker, Errege-Magoer eta Oilo-kolokari aski hurbil, ilhargia, hotz hotza, bainan izigarri-eder, beha zagon berak hain ongi aphantzen zuen kanpo hari guziari. Piarresi ere ez othe zion gain hartarik behatzenean?... Oihanaldearen gainerat heldu zen orai, ixil ixila lerratuz, zero urdinca igerika bezala. Eta, muthil gazteak ikusten zuen, han, ilhargi hartan, duela bi mila urthe edo hurbil, igandekari lanean arizanik, aircan hartua eta eremana izan zen gizon dohakabea, bere egur-zama zorigaitzezkoa bizkarrean.

Errege Zalomonen xakur-ihiztariak ere, sainga eta sainga iragaiten, sumatu zituen zero goren-gorenean.

Horma ikaragarria ari zuen aircan, lurrecan, orotan.

Bainan horma eta hotzari ohartu ere ez zen Piarres; eta, Oihanaldean sartu zen, ikare goxo eta garbi batekin, Lizartzako alderat azken behako maite bat luze luzea igorririk.

Abuz Barria

ZAZPIGARREN ERAKASPENA.ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Erakuskigune itxirak idazlariak erabiliak neguaren terakusteko.
2. Bestalde egun hartan zohardiz zena? Zertako?
3. Zer da Jon Doni Jakoberen bidea?

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

- | | |
|-------------------------------|-------------------|
| 31. Bazoan | 32. Suma zitaken |
| 33. Behazagon | 34. Ez othe zion. |
| 31. JOAN - Aller - Indicatif. | |

Present

Ni Noa = Je vais

Hi Itoa = tu vas

Zu Zoatzi = vous allez

Hura Doa : il va

Gu Goatzi: {

Zuek Zoazte: {

Hek Doatzi= etc.

Imparfait

Nindoan = j'allais

Hindoan = tu allais

Zinootzin = vs allez

Zoan = Il allait

Ginovatzin: {

Zinwarzten: {

Zoatzin = etc.

32. IZAN - Potentiel.Present

Ni igan maiteke = je peux être

Hi " haiteke = tu peux être

Zu " zaitezke = Il pourra être

Hura " daiteke {

Gu " gaitezke {

Zuek " zaitezkete {

Hek " daitezke etc. {

Imparfait

igan ninteken = je pourrai être

" hainteken = tu pourras être

" zintezken {

" ziteken {

" gintezken {

" zintezketen {

" zitezken {

33. EGON - Indicatif.Present

Ni nago = je reste

Hi hago = tu restes

Zu zaude {

Hura dago {

Gu gaude {

Zuek zaudezte {

Hek daude etc. {

Imparfait

nindagon = je restais

hindagon = tu restais

zinauden = {

zagon = {

ginauden = {

zinaudeztzen = {

zauden = etc. {